

## Kultura

40 talderen dantza ikuskizunak taularatuko dituzte  
Elorriko Akadantz lehiaketan, bihar > 12



## Eroskik supermerkatu berria irekiko du 2017ko lehen seihilekoan, Zornotzan

Tantorta auzoan eraikiko dute Lidl supermerkatuaren parean, eta 1.500 metro koadroko salmenta azalera izango du. Eroskiko arduradunen esanetan, elikagaien salmentara mugatuko da. Proiektuak Tantortako hainbat azpiegituren hobekuntza ere ekarriko du. Dendariak elkarteak proiektua babestu du. EH Bildu eta Arkupe kontsumo taldea, aldiz, aurka daude. > 2

*“Osasunean gure inguru guztiak eragiten du; lantokia eta etxea horren zati dira” > 10*



Amaia Iriarte | Medikua



## Elizaren izenean

Inoren izenean ez zeuden erkidegoko 525 ondasun erregistratu ditu elizak 1978tik hona. Durangaldean, adibidez, bitxia da Iurretako San Andres auzoko txokoa erregistratu izana. > 4

**DHEO** DURANGO  
Hizkuntza Eskola Ofiziala / Escuela Oficial de Idiomas

2015-2016ko matrikula librea  
ZABALIK

Otsailaren 15eko 10:00etatik  
Otsailaren 29ko 13:30era

36,18 €

www.eoidurangoeo.hezkuntza.net  
94 620 33 42 - 94 681 66 45



### Durango > 7

PSE-EEko zortzi kidek kargua uzteko eskatu diote Agorriari

### Durango > 8

Memoriaren Plaza erakusketan herritarren lekukotzak ikusgai

### Elorrio > 3

2017an herri galdeketa egitea aurreikusi du Gure Esku Dagok

### Izurtza > 9

Biomasa bidezko berokuntza sistema jarri gura dute

## Herririk herri

# Eroskik 1.500 metro koadroko supermerkatua irekiko du 2017an

Dendariak elkarteak proiektua babestu du

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Eroskik supermerkatu berria irekiko du 2017ko lehen sei hilabetean, Tantorta auzoan, gaur egun Lidl supermerkatua da goenaren aurrez aurre. Era berean, Tantortako azpiegiturak hobetzeko hainbat lan bideratu ditu.

Zornotzako udaleko eta Eroskiko arduradunek lanen gaineko xehetasunak eman zituzten eguazteneko prentsurrekoan. Alde denek supermerkatu bat izango dela azpimarratu zuten, eta ez merkataritza zentro bat. "Ez du bestelako negozio edo dendarik hartuko", adierazi zuen Anartz Gandiaga Hirigintza alorreko zinegotziak. "Eligaietara mugatuta egongo da, orain eskaintzen dena baino eskaintza zabalagoagaz. Ez da arroparik, etxe-tresnarik edo bestelakorik salduko", gehitu zuen Eroskin Bizkaiko sustapenagaz arduratzen den Miguel Gorostiagak. "Supermerkatu eredu hau gure herri ereduaren barruan sartzen da, eta herritarren eskaerari erantzuten dio", gaineratu zuen Andoni Agirrebeitia alkateak.

Kalkulatutako epeak betetzen badira, lanak 2016 amaieran hasi gura dituzte, eta supermerkatua 2017ko lehen sei hilabetean irekiko litzateke. Lan denek sei milioi euro inguruko inbertsioa eskatuko dute. Eroski da lurzoru hartako sustatzailea, eta gastu dena bere gain joango da. Eraikin osoak 2.200 metro koadroko azalera izango du, eta salmentara bideratuko duten azalera 1.500 metro koadro. Hedaduran, gaur egun Eroskik Durangoko Aramotz

auzoan duenaren antzerakoa izango da, baina aparkaleku handiagoarekin. Zornotzakoak 145 plaza izango ditu.

Eroskik orain Zornotzan duen supermerkatuak 600 metro koadro ditu, eta "ezin diogu eskaerari erantzun", azaldu zuen Gorostiagak. Ondorioz, zornotzar askok Abadiñoko eta Basauriko supermerkatuetara jotzen dute. "Zornotzarrei zerbitzu hobea eskaini gura diegu".

Proiektua gauzatzeko, udaleko arauen aldaketa puntuala egin behar da, orain mota horretako azpiegiturak 600 metrora mugatuta daudelako. Gai hori udalbatzarrean "ahalik arinen" eramateko asmoa erakutsi du Agirrebeitia alkateak. Aldaketaren ostean asko jota horrelako beste supermerkatu bat egiteko aukera egongo dela azaldu du eta Eroskik egingo duena baino azalera txikiagokoa.

**Dendariak elkarteak, alde Eroskiren asmoaren berri jakin zutenetik, gertuko jarraipena**



M. Gorostiaga, A. Agirrebeitia, A. Gandiaga eta R. Ibañez prentsurrekoan.



Supermerkatua, aparkalekua eta Tantorta ingurua zelatan geratuko diren jasotzen duen irudia.

egin diotela adierazi zuen Dendariak elkarteko Ricardo Ibañezek. Euren eskaera nagusien artean, merkataritza zentro barik supermerkatua izatea, eta eraikin barruan negozioren ez jartzeari zeuden. Besteak beste, puntu horiek errespetatzen direnez, ados daude supermerkatua egitearekin: "Azkenean, zornotzarrek dira herriko komertzioen bezeroak eta horrelako zentro bat eskatzen dutenak. Beraz, gu ezin ginen kontra egon".

**Tantortarako hobekuntzak** Proiektu honi bidea ematera-ko orduan, "herriko interes

orokorrak eta Tantorta auzoko beharrezkoak" bateratzen saiatu dira, alkatearen berbetan. Lan horien kostua ere Eroskiren kargu joango da.

Hobekuntza bat sarrerarteerari dagokie. San Pedro kaleko bidea zabaldu eta hobetu dute, eta espaloiak eta arboladia gehituko dizkiote. 30 plazako aparkaleku bat ere sortuko dute bide ondoan, luzetara. Zirkula-

zioa bideratzeko, barrualdean biribilgune berri bat egingo dute. Etorkizunean, biribilgune hori herrigunerako sarbide berri bateko lotunea izango da.

Lan horiez gainera, sasoi bateko goma-fabrika ingurua berreskuratu, biribilgunearen ondoan umeendako jolasgune bat egin eta, oro har, azpiegiturak eta argiztapena hobetuko dituztela adierazi zuten.

## Arkupe taldea eta EHBildu irekieraren kontra daude

Mota horretako azpiegituren kontra azaldu dira

Zornotzako Arkupe kontsumo taldeak eta Zitzada Guneak ohar batean supermerkatu hau zabaltzearen kontrako jarrerari adierazi dute.

Kontsumo aldaketetan eta kontsumismoan duen eragin eta esanahiagatik ez daude ados supermerkatu berria irekitzeagaz. "Udalak kontsumismoa bultzatuko du beste eredu iraunkor batzuk bazterrean utzita. Adibidez, bertako produktuen kontsumoa, agroekologikoa eta transge-

niko gabekoa bultzatzen duen eredu. Bide horrek elikadura burujabetza du izena".

Supermerkatu berriari tokia egiteko EAJK eta PSEk araudia aldatuko dutela kritikatu du EH Bilduk: "Etorkizunean beste enpresa batzuk izango dira, legea aldatuta, Zornotzako ateak parez pare irekita izango dituztenak. Azalera handiko merkataritza guneen aurka gaude, tokiko merkataritza kaltetzen dutela irizten diogulako".

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:  
946 232 523

Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2016ko otsailaren 19a  
14. urtea - 621. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Goretti Alonso Armendia  
eta Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
Amaia Ugalde Begoña eta  
Paul Bustindui Revuelta.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.

### Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



# 2017an herri galdeketa egitea aurreikusi du Gure Esku Dagok

Elorrioko Gure Esku Dagok datozen hiru urteetarako planaren berri eman du



Iaz, jende asko batu zen Elorrioko Joste Egunera. Aurten ere, apirilaren 23an jaia antolatuko dute.

**ELORRIO** Amaia Ugalde Elorrioko eragile eta alderdi politikoekin batzarrak egiten ibili da, azken hileotan, Elorrioko Gure Esku Dago, eta lanketa horretatik, datozen urteetan herrian zer egin gura duten zehaztu dute. Horrela, 2017an herri galdeketa egitea da asmoa, eta berau antolatzeko, batzorde anitz bat sortzea. Horren aurretik, lan handia egin beharko dela eta jende askoren ekarpena beharko dela azaldu dute taldeko kideek.

Aurten, kalera begirako bi hitzordu prestatu dituzte. Haste-ko, kriseiluen gaua egingo dute, martxoaren 11n, eta asteburu honetan eta hurrengoan izango

dira kalean, ekitaldiaren berri ematen eta kriseiluak saltzen. Apirilaren 23an, berriz, jai berezia egingo dutela azaldu du taldeko Ima Eguenek: "Iaz, Joste Eguna San Marko egunean izan zen, eta egun hori guretzat hartzea pentsatu dugu". Jai horretan, besteak beste, bozketa simboliko bat egingo dute. Galdera ez dute zehaztu oraindik, baina erabakitze eskubidea praktikan jartzea izango da helburua.

Kalera begirako ekintzak egiteaz gain, politikariekin eta elkarteekin batzartzen jarraituko dute, "batzen gaituzten oinarriak topatzeko" eta oinarri horiekin adierazpen bat sortzeko. Udaleko alderdi guztiek aho

batez onartzeko testu bat izatea gura dute. Behin babes hori jasota, 2017an egingo da herri galdeketa. Berau zelaz egin eta zer galdetu pentsatzeko, batzorde bat eratuko dela aurreratu dute, eta talde horretan jende anitzak parte hartzea gura dute.

**Taldea, osasuntsu** "Osasuntsu eta martxa onean" dabilta Elorrioko Gure Esku Dago taldeko kideak. Horrela azaldu du Ima Eguenek. Elorriar askogaz batu dira azken hileotan, eta "harrera oso ona" izan dute: "Iazko Joste Egunean egon zen jendetza ez da kasualitate; eztabaida sano eta naturala sortzen dabil herrian".

# Berdintasun Planean "kolektibo berrietara" heldu gura dute

Datozen egunetan hasiko da udala Berdintasun Plan berria dinamizatzen

**ELORRIO** Markel Onaindia Berdintasun Plan berria diseinatzen hasiko da Elorrioko Udala datozen egunetan, eta, prozesu horretan, "kolektibo berrietara" heltzea gura dute, Ma-

rije Apodaka berdintasun teknikariak prentsaurrekoan azaldu duenez. Arloan lanean dabil-tzan herritarrak, elkarteak eta udal ordezkariak eragile aktibo izango dira, baina dinamika

emakume esparru batzuetara ailegatu barik dagoela uste dute. "Helburua plan estrategikoa egitea da, ez ekintza plan bat", Apodakaren arabera.

**Solasaldiak, tailerrak...** Idoia Buruaga alkatearen berbetan, herriko laugarren plana izango da. "Udalak urteak dar-matza arloan lanean. Uste dugu badela ordua egindako lan guz-tia baloratzeko". Hiru fasetan garatuko dute, Aratxu Uriarte berdintasun zinegotziak azaldu lez. Lehenik, orain arteko plana ebaluatuko dute; gero, diagnos-tikoa landuko dute; eta, azkenik, plan berria diseinatuko dute. Otsailean solasaldiak burutuko dituzte herritar eta udal langi-leekin, eta martxoan izango dira lehenengo tailer zabalak.



Apodaka, Uriarte eta Buruaga, udaletxean, prentsaurrekoaren ostean.

# Lan gatazka piztu da berriro Nanuken

Negoiazioan ez dira akordiora heldu bi aldeak

**ELORRIO** M.O.

Transportes Nanuk enpresa hartzekodunen aurre-konkur-tsoan dagoela azaldu du CCOO, ELA eta LAB sindikatuek osatutako enpresa komiteak, eta zuzendaritzagaz edukitako negoziazioan ez direla akordiora heldu esan dute. "Enpresa-ren aldetik ez da akordiorako benetako borondaterik egon, konponbiderako aukera bakarra langileen sakrifizioan eta murrizketetan kokatu baitute". Zuzendaritzak soldatak %15 eta %20 artean bajatu gura dituela salatu dute.

Transportes Nanuk garraio enpresan lan gatazka gogorra bizi izan zuten duela pare bat urte, greba luze eta guzti. Akordioa lortu zuten azkenean, eta bazirudien arazoak konpondu-ta zeudela. Baina, orain berriro piztu da gatazka.

**Komitearen partaidetza**

Beharginen ordezkariak esan dute akordiorako hainbat proposamen egin dituztela, "kontuan edukita enpresa ez dela bere momentu ekonomikorik onena bizitzen ari". Bost eskari nagusi izan dira: enpresaren antolaketan komiteak partaidetza eta kontrola edukitzea; langileei bezala bazkideei ere herrialdeko hitzarmenaren arabera soldata bajatzea; enplegua ez

suntsitzeko bermea; gerentziak erantzukizunak onartzea; eta bazkideek pentsio-funtsera egiten dituzten ekarpenak berehala bertan behera uztea.

**"Kaleratzeak adostu"**

Baina, enpresa komitearen arabera, "zuzendaritzaren erantzuna kaleratzeak adosteko aukera

Komitearen arabera, "zuzendaritzaren erantzuna kaleratzeak adosteko aukera izan da"

Beharginen ustez, gerentziakoak dira egoeraren benetako errudunak

izan da". Beharginen ustez, gerentziakoak dira "egoeraren benetako errudunak". Horregatik, ez dute ondo ikusten egoeraren ondorioak langileek eurek jasan behar izatea.

**Beharginak, zain**

Une honetan, "soldata jaitsiera edo beste edozein murrizketa noiz inposatuko zain" daudela adierazi dute komitekoek.

**berria astekaria**  
eskutik goaz

BERRIAREN asteko artikulu hautatuak, ostriarero, eskuko telefonotan eta tabletan

- > ASTEROKOA
- > BISUALA ETA IRAKURTERRAZA
- > ARTXIBO OSOA ESKURA
- > BANATZEKO AUKERA
- > JAKINARAZPENAK
- > DOAKOA

Deskargatu aplikazioa, erabili, zabaldu edukia, eta lagundu zure ekarpenarekin halako egitasmoak garatzen: [www.berria.eus/berrialaguna](http://www.berria.eus/berrialaguna)

deskargatu aplikazioa

Available on the App Store | Get it on Google Play

berria-mundua-euskarari-emana



Iurretako San Andres auzoan, ermita ondoko txokoa 1993an erregistratu zuen elizak.



Atxondoko eliza eta abadetxea 1993an inskribatu zituen.

## Elizak bereganaturiko ondasunak: bidezko erregistroa ala pekatua?

Elizak Iurretako San Andres auzoko txokoa inmatriculatu zuela argitaratu da

**ERREPORTAJEA** M. Onaindia

Eliza katolikoak Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako 525 ondasun bereganatu edo inmatriculatu ditu 1978tik hona, Jabetzaren Erregistroak emandako datuen arabera. Hau da, ez zeuden inoren izenean, eta elizak bere jabetzan erregistratu ditu. Lege babesa eduki du horretarako, eta prozeduraren zergetatik salbu ere egon da. Inmatriculatutako ondasunetako batzuk Durangaldekoak dira: Elorrioko lursail bi San Agustinen eta Argiñetan; Atxondoko eliza eta abadetxea; eta Iurretako San Andres auzoko lursail bat, ermita eta txokoa. Azken astetan, elizaren ondasun horien inguruko ika-mika zabaldu da hedabideetan. Erregistroa bidezkoa izan da, ala pekatua?

San Andres auzoko txoko edo elkarte gastronomikoarena da erregistro bitxietako bat.

**525**  
ondasun inmatriculatu ditu elizak 1978tik hona Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan

Ermitaren alboan eraiki zuten auzotarrek, 1990 bueltan, eta geroztik bazkari zein karta-jokoen bilgune izan da; eurek ordaindu dituzte gastuak. Elizak 1993an inmatriculatu zuen. Auzokide batek esan du auzoan ez zekitela ezer, eta "harritura eta haserre" daudela enteratu direnean.

### Parrokiaren esku

Txokoaren kasuan, gotzaindegiak esan du Durangoko Santa Anako parrokiaren esku dagoela zer erabilera eman erabakitzea. Gaia orokorrean hartuta,

bere jabetzak lehenagokoak direla defendatu du: "Bizkaiko Elizak ez du bereganatu berea ez den ezer; jabe zen ondasun batzuk bere izenean inskribatu baino ez ditu egin". Bestalde, Oiz mendian ere lursail bat inmatriculatu zuela zabaldu da, baina Elizbarrutiak ukatu egin du hori; 1977an erosi ostean erregistratu zutela azaldu du.

### EH Bilduren mozioak

2009an, Nafarroan 1.000 inmatriculaziotik gora egin zirela argitaratu zen. Hari horri tiraka, EH Bilduk argitaratu du hiru probintzietako gaia, Eusko Legebiltzarrean landutako ekimen batez. Hurrengo pausoa, herrietan mozioak aurkeztea izango da, eta Legebiltzarrean ere proposamen bat aurkeztuko dute, Igor Lopez de Munain parlamentariak azaldu duenez: "Az-



Argiñetako lursaila 2006an inmatriculatu zuen gotzaindegiak.

pikeria honen ondorioz, komunitateak galdutako ondasunak berreskuratzea da helburua".

Baina, EH Bilduren ekimena ez da hor geratzen. 1978 aurretik egondako erregistroen inguruko informazioa eskatu du. "Uste dugu ondare hori publikoa dela, eta beti izan dela. Herriak ondare hori eraikitzeke eta zaintzeko ardura hartu badu, herriarena dela uste izan duelako da".

Gizartea guztiz katolikoa zen garaian, udalek eta auzotarrek eraiki zituzten eraikin ugari. Batzuk elizari eman zizkioten, beste batzuk gero inmatricula-

tu ditu elizak. Iurretako Abadetxea, adibidez, 1732 eta 1736 artean altxatu zuen udalak, eta XIX. mende amaieran, elizak erregistratu zuen udalaren baimenagaz, Jon Irazabal historialariak kontatu duenez. 2006an su hartu aurretik, herriko hainbat kultur eragilek erabili izan zuten, abadeagaz batera.

Abadetxearen antzera, ermita gehienak auzo bizitzan erabili izan dira. Argiñetakoak, esaterako. Orain konponketen beharra du, baina badirudi, elizak barik Aldundiak ipiniko duela dirua, nekropoliaren balioagatik.

## "Gure ondasunak behartsuen alde erabili beharko genituzke"



**Jose Agustin Maiz**  
Parrokia eta bikarioa

Durangoko Andra Mariko parrokoa da Maiz (Ondarroa, 1963), eta Bizkaiko Gotzain Kontseiluan parte hartzen du,

lurraldeko bikario lez. Eliza ondo ezagutzen du, beraz.

### Zer sentazio eduki duzu inmatriculazioen gaia kaleratzean?

Bada, gauzak ondo egin behar direla. Elizak, batzuetan, ez ditu gauzak ondo egin; uste dut Nafarroako inmatriculazioen gaia ez zela ondo eraman, eta horrek kalte handia egin digu. Nire iritzi pertsonala da. Bestalde, batzuek ez dute ulertu edo ez dute ulertu gura inmatriculazioen gaia. Normalean, zuk ezin duzu erregistrora joan eta zurea dela esan, ez baldin bada zurea. Eliza

oso jomuga erraza da erasotzeko, eta esan daiteke, alderdi politiko batzuek nora jo ez dutenean, elizaren aurka jotzen dutela. Eliza modura zein alderdi politiko modura, herriaren aurrean erantzukizuna dugu, eta ezin dugu nahastu.

### Eztabaida pil-pilean dago.

Nire ustez, gotzaindegian ez dago inongo arazorik inogaz berba egiteko. Ondasun batzuen inguruan sortzen den eztabaida ez da argia; batzuk elizarenak dira, baina herriak erabiltzen ditu. Noraino izan beharko litza-

teke elizarena? Herriak noraino ez du lagundu behar? Adibidez, guk organoak dauzkagu, eta ospakizun liturgikoetatik aparte, kulturaletarako ere erabiltzen dira. Beraz, herria ere aberastu egiten da. Kasu horretan, nork ordaindu beharko lituzke konponketak? Normalean, elizak ordaintzen ditu. Gure komunitateak ez dira aberatsak, eta elizak dirua daukala mito bat da. Gure kontuak argi daude, gainera.

### Bestalde, eraikin batzuk funtzio sozialerako erabiltzen dituzue.

Gure ondasunak behartsuen alde erabili beharko genituzke. Zorionez, Durangon, gauza batzuk egiten gabilta. Hiru pisu dauzkagu etxebakoentzat, eta

euren esku gauza gehiago jarri nahi genuke. Jesusen Mirabeen komentua ere Caritasek erabiltzen du etxebakoan aterperako. Baina horiek sekula ere ez dira nahikoa izaten.

### Etxepel aterpetxearen aurkezpenean hauxe esan zenuen: "Gizarte honek ez gaitu konbentzitzen. Justizian oinarritutako gizarte bat nahi dugu".

Ez gaitu konbentzitzen, ez. El-karrizketaren aurretik entzun duzun telefono deia, gure pisuetako batean neska bat sartuko dela abisatzeko zen. Atzo kalean geratu zen, ordaintzen ez zuela eta etxetik bota dutelako. Egiten duguna ez da sekula nahikoa izaten, eta gehiago ahalegindu beharko ginateteke.

## Euskal Ingurugiro Iraunkortasun Azoka



berdeago

Durango, Landako Gunea  
Otsailak 19, 20, 21**Otsailak 19, ostirala**

Ordutegia: 11:00-14:30 / 16:00-20:30

**ZIRKULO BERDEA**

**09:00 / 13:00 Passivhaus formakuntza** (izen ematea eta informazio gehiago: info@onhaus.es)  
Passivhausaren 5 printzipioak (Pedro Mariñelarena, arkitektoa)  
Blower door-a eta termografia (Eneko Iraizoz, ingeniari termikoa eraikuntzan)  
Eraikinerako-siga hermetikotasunaren inguruko tailer praktikoa (Koldo Monreal, Zuzendaria onhaus-en)

17:00 / 20:00 Ludoteka

**HITZ BERDEA**

**17:00 / 17:30 Bizkaiko Iraunkortasunera hezkuntzako ekintza egitasmoa 2020**  
Xabier Arana (Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen iraunkortasuneko eta Hezkuntzako Atal Burua)

**18:00 / 20:00 Tokian-tokiko ekimen arrakastatsuak**  
Mugikortasun jasangarriarekiko apostua (Durangoko Udala)  
Atez-ateko zabor bilketa sistema (Usurbilgo Udala)  
District Heating beroketa sistema (Ispastergo Udala)  
Ukanauto eta BIZIMETA alokairu sistemak (Uribe Kostako Mankomunitatea)

**FILM BERDEA** *Plateruena Kafe Antzokian*

- 17:00 INTO ETERNITY** (2009, Michael Madsen, 75 min., Ingelesez - azpigituluak gazt.)  
**22:00 BIKES VS. CARS** (2015, Fredrik Gertten, 91 min., Ing-Port-Gazt - azpigituluak gazt.)

**Otsailak 20, larunbata**

Ordutegia: 10:00-14:30 / 16:00-21:00

**ZIRKULO BERDEA**

**10:30 / 11:45 Quantum energy generator, Mitoa edota errealitatea? \***  
**12:00 / 13:15 Ikasi zure elektrizitate faktura ulertzen** (Goienerek eskainitako ikastaroa)  
**13:30 / 11:45 Hidrogenoa, oraina eta etorkizuna \***  
**17:00 / 20:00 Ludoteka**

**HITZ BERDEA**

**11:00 / 13:00 Hezkuntza, zeintzuk dira nire alternatiba berdeak**  
Repelega Institutua, Portugalete (Mixel Gomez, irakaslea)  
Lea Artibai Ikastetxea, Markina-Xemein (Iagoba Bergara, irakaslea)  
MONDRAGON UNIBERTSITATEA (Fernando Garramiola)  
EHU-UPV, Eibarko ingeneritza eskola (José Ignacio San Martín, zuzendaria)

17:00 / 18:00 **Batzuen zaborra, beste batzuen negozioa.****100% birzikled**

Paperezko ehungintza (Ainhoa Mujika)  
Paleike, birziklaturiko paletekin egindako altzariak (Jesús Rivas eta Maitri Ugalde)

18:30 / 19:30 **Euskal Herria eta bizikleta**

25 urte pedalei eragiten hiria aldatzeko (Kalapie, Hiriko txirindularien elkarte)  
Bizikleta eta bere ekarpena Euskadiko mugikortasun jasangarrian (Ibon Hormaeche, Iniciativas ambientales)

**Otsailak 21, igandea**

Ordutegia: 10:00-14:30 / 16:00-20:00

**ZIRKULO BERDEA**

**10:30 / 11:45 Zelula Termoelektrikoak, peltier/seebeck efektuak \***  
**12:00 / 13:30 Maglev, lebitazio magnetiko/kuantikoa \***  
**17:00 / 20:00 Ludoteka**

**HITZ BERDEA**

**12:00 / 13:00 Kontsumo zero, enpresa eta etxeetako esperientziak**  
Eroski Ali Gobeo (Xabier Esteban, Eroskiko ESK eta Jasangarritasun saila)  
Passivhaus etxebizitza bat eraikitzearen esperientzia (Eva Isasi, Diego Arzanegui eta Lander Olabarri)

**16:30 / 17:45 Eraginkortasun energetikoa etxean**  
Energia berriztagarriak eraikuntzan (Rubén Amparan, Lansolar)  
Energia berriztagarriak etxeetan: Zein sistema aukeratu kasu bakoitzean (Josu Salazar, Ekidom)  
Lastozko eraikuntzen garapena (Jose Luis Veiga, Ecopaja)  
Errehabilitazio energetikoa eraikuntzen alde pasiboan (Patxi Padura, Efeuue Fachadas Ventiladas)

**18:00 / 19:30 Toxikorik gabeko etxebizitza**  
Inhar Agirrezabal (Ari Arkitektura, Bioeraikuntzan masterra eta aholkularia)  
Amaia Iriarte (Medikuntzan lizentziatua, Homeopatian espezializatua eta Erizaintzan diplomatua)

**FILM BERDEA** *Plateruena Kafe Antzokian*

- 10:30 WALL-E** (2008, Andrew Stanton, 103 min., gaztelaniaz)  
**16:30 TIERRA PROMETIDA** (2012, Gus Van Sant, 106 min., gaztelaniaz)  
**18:15 Baso ahaztuak** (2013, I.Yurrebaso - I.Pujana, 61 min., euskaraz-azpigituluak gazt.)

\* Luis Sutilek eskainitako ikastaroak

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



# Gasteizera doan 15:00etako autobusa Maspen geldituko da

Urteetako arazoa konpondu dela-eta, pozik daude Juan Orobiogoitia institutuan



Joan zen astelehenetik, lurretako Maspe kalean gelditzen da Durango-Gasteiz linea egiten duen 15:00etako autobusa.

**IURRETA** Aitziber Basauri Maspe kalean geldituko da Durango-Gasteiz linea egiteko, Durango 15:00etan irteten den autobusa; 15:05ean geldituko da.

Bai Alsa autobus konpainiak bai Arabako Foru Aldundiak onartu egin dute Juan Orobiogoitia institutuak eta lurretako Udalak egindako eskaria. Ikas-

leen gurasoak eta Otxandioko Udala ere batu ziren eskari horretara.

Otxandiotik lurretara datozen ikasleek eskertuko dute zer-

bitzu hori. Izan ere, autobus hori hartu ahal izateko, Durangora denboraz iristeko zailtasunak izan dituzte. Eta, hurrengo autobusa 17:00etan irteten da.

Urteetan luzatu den arazoa konpondu dute: joan zen astelehenetik, lurretan ere gelditzen da Durangotik 15:00etan irteten den autobus hori. Pozik daude institutuko arduradunak. Zentroko zuzendari Unai Zuazuak azaldu duenez, iazko ekainean eskatu zieten ALSA konpainiari eta Arabako Aldundiari autobus hori herrian gelditzea. Institutuak, gurasoek eta lurretako Udalak hasitako ekimenera, Otxandioko Udala lotu zen ondoren.

**Ikastetxeak ordutegi berria** DBHko 1. eta 3. maila eta Batxilergoko 1. maila sartu dira aurten LOMCEn. Horren eraginez, batxilergoko ikasleek ordu bat gehiago egin behar dute ikasteetxean. Eskola ordutegia moldatu du institutuak horren aurrean: orain, 08:30ean barik, 08:10ean sartzen dira: "Hartara, goizago heltzen diren Zaldibar eta Otxandioko ikasleek denbora gutxiago itxaron behar dute sartzeko. Irten ere lehenago irtengo dira, eta Otxandiokoek errazago hartuko dute 15:05eko autobusa", azaldu du Zuazuak.

## Bigarren eskuko azoka egingo dute, domekan, Olaburu frontoian

**IURRETA** A.B.

Kontsumo solidario eta jasangarria bultzatzeko, bigarren eskuko azoka antolatu dute Juan Orobiogoitia institutuko ikasle eta gurasoek. Domekan izango da, 10:00etatik 14:30era, Olaburu frontoian. Iurretako eta inguruetako familiek etxean dituzten eta erabiltzen ez dituzten objektuak saldu eta trukatzeke aukera emango dute

Azokan jartzeko mahaia 10 euroan alokatu daiteke; lortutakoa 4. mailako ikasbidaiarako izango da

azokan. Materiala 08:00etatik 10:00etara batuko dute.

Azokan jartzeko mahaia 10 euroan alokatu daiteke, eta lortutako dirua 4. mailako ikasbidaiarako izango da. Kontsumo arduratsua bultzatzeko ekimen honetan parte hartzera gonbidatu dituzte lurretako eta inguruetako herritarrak.

## Garaiko sagardoagaz txotx egingo dute, 27an

Sagardo Eguna deitu dute hurrengo zaturako

**GARAI** M.O. Otsailaren 27an, hurrengo zaturako, Sagardo Eguna ospatuko dute Garain. Eta, horretarako, zer hoberik herrian bertan ondutako sagardo dastatzea baino? Zezpala eta Okiltxiki sagardoak eskainiko dituzte pilotalekuan, 18:00etatik aurrera.

Sagardoaren jaira hurreratzeko diren guztientzat kopaua edo luntxa prestatuko dute parrrilan eginiko hainbat produk-

tugaz. Edalontziagatik bost euro ordaindu beharko dira, eta, trukean, nahi beste sagardo edan ahalko da.

**Auzolanean eginga**

Zezpala sagardo koadrila batek auzolanean eginikoa da, inguruko baserrietako sagarrek. Okiltxiki izenekoa Oiarzuneko (Gipuzkoa) da, baina zenbait garaitarrek laguntzen dute ekoizpenean.

## Gaurtik domekara arte egongo da zabalik tonbola solidarioa

**ZALDIBAR** I.E. Azken urteetan bezala, Bilbo etorbideko lokalean egongo da, asteburuan, tonbola solidarioa. Gaur, 19:00etan zabalduko dute, eta bihar eta etzi, goiz eta arratsaldean egongo da zabalik.

Azken hiru-lau hamarkadetan egin duten bezala, urte guztian zehar Parrokian biltzen den emakume taldeak eskuz landutako hainbat opari izango dira tonbola horretan jokoan, eta baita herriko dendariak emandako opariak ere. Euro batean salduko dituzte txartelak, eta biltzen duten dirua herriko hiru misiolari Hego Amerikan eta Afrikan burutzen duten duten lana laguntzera bideratuko dute, urtero bezala.

## Administratzaile lanetarako langile bat kontratatuko du udalak

**OTXANDIO** J.D. Orain udaleko administrazio gunean lan egiten dutenei laguntzeko, administratzaile berri bat kontratatu gura du udalak. Horrela jakinarazi zuten azkenengo udalbatzarrean. Kontratazioa urte birako izango litzateke, eta martxoan bertan lanean hastea da asmoa.

Langile horrek udaleko harrerako leihatilan lan egingo luke hasieran, eta ondoren, ikasten doan heinean, bestelako ardura batzuk ere izango litzuke. Interesatuak udaletxean jaso dezakete informazioa. Lan eskaeraren berri lurretako Institutuan ere eman dute, bertan ildo horretako ikasketak egin dituztenei zuzenean jakinarazi diezaieten.

Administratzaile berri martxoan hasiko litzateke lanean eta kontratazioa urte birako izango da

## Hezkidetzari buruz jarduteko proposamena

AbadiñoSex zerbitzuak eskainiko ditu tailerrak

**ABADIÑO** I.E. Sexualitate aholkularitzarako eta indarkeria matxistaren prebentziorako AbadiñoSex guneak bultzaturiko ekimena da hezkidetzari buruzko berbal-diena. Hezkidetzaren sexismoaren kontrako tresna eraginkorra dela azalduko diete gurasoei.

Traña-Matiena eskolan egingo dituzte saioak, otsailaren 22an, 23an eta 24an; Haur Hezkuntzako umeen familiei zuzenduriko saioa egingo dute 22an;

LHko lehenengo zikloko umeen familiak deituko dituzte 23ko hitzordura; eta LHko bigarren zikloko umeenak, 24an.

Sexualitatearen inguruko aholkularitza eskaintzen die gazteei, 2013. urtetik, AbadiñoSex zerbitzuan. Txanpota kultur etxean egoten dira aholkulariak hileko lehenengo astelehenetan, eta Traña-Matienako udalaren lokalean, hileko hirugarren astelehenetan, 17:00etatik 19:00etara.

## Bost saltokitako errotuluak euskaraz, udalak diruz lagunduta

**ABADIÑO** I.E. Abadiño Udalak jakitera eman duenez, bost dendak jasoko dute errotuluak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz ipintzeko diru-laguntza. Udal gobernu taldeak azaldu duenez,

herriko sei saltokitako ardura-dunek aurkeztu dute diru-laguntza hori jasotzeko eskaria, baina bostek bete dituzte baldintzak, eta beraz, bostek jasoko dute udalaren diru-laguntza.

Gobernu taldeak azaldu du, errotulazioa euskaratzearen kostuaren erdia dela Abadiño Udalak subentzionatuko duena, eta guztira, 1.095 euroko diru atala bideratuko dutela Abadiño Udaleko Euskara sailak bultzaturiko ekimen horretara.



Ríos, alderdiaren iazko ekitaldi baten berbetan. Agorria atzean, eskumatik hasita hirugarrena.

## Agorriari kargua uzteko eskatu diote PSE-EEko zortzi kidek

Zortzi militantek gutuna bidali dute, eta PSE-EEren krisiak eztanda egin du

### **DURANGO M.O.**

Idoia Agorria sozialista udal gobernuko gestiorako kontratatu izanak hautsak harrotu ditu, eta gaiak etxe barruan eztanda egin dio Durangoko PSE-EEri. Otsailaren 8an batzordea bildu egin zen gaia aztertzeko, eta Agorriari kargua uzteko eskatu zioten bi kidek. Erantzunik eman ez duela-eta, alderdiko beste sei militantegaz batera manifestua zabaldu dute. Agorriaren kontratazioa “erabaki pertsonalen” arabera dela uste dute.

Zortzi militantek gutunean diotenez, kontratazioa ez da

PSE-EE eta EAJren arteko akordioetan jasotzen, ez Durangoan ez Bizkaikoan. “Egoeraren berri prentsatik izan dugu”, esan dute sozialistek. Bestalde, Pilar Ríos alkateordea ere erantzule dela diote: “Jakín dugu Pilar Ríosen inizatiba hutsa izan dela. Ez du zuzendaritzen baimena jaso, eta onartu du informazioa ezkutatu egin diela”.

Alkatetzako administrazioko postua Agorriaren militantziagaz ez dela bateragarria uste dute, eta kargua uzteko eskatu diote berriro. Egoera aztertzeke asanblada urgentea egingo dute.

Agorria zinegotzi liberatua izan da azken bi legealdietan, eta azken hauteskundeetan, udaletik kanpo geratu zen. EH Bilduk alkatetzaren kontratazioarako dekretua argitaratu, eta

“Jakín dugu Pilar Ríosen inizatiba hutsa izan dela. Ez du zuzendaritzaren baimena jaso”

“etikoki iraingarria” zela salatu zuen: “Bulegoetan lortu du herritarrek eman ez ziotena”.

## Siriarrei bideratzeko 750 euro batu dituzte

### **DURANGO M.O.**

Errefuxiatu siriarren alde 750 euro batu ditu Durangoko Herria elkarteak. 600 euro Txixiburduntzi egunean lortu zituzten auzo elkarteok, eta gainerakoa Santa Ageda koplak abesten irten zirenean jaso zuten.

Batutako dirua, Sarerik Gabeko Emakumeen Sarea-

ri emango diote, Herriakoe prentsa oharrean azaldu dutenez. Errefuxiatu siriarrekin elkartasuna agertu gura izan dute Matadero inguruko auzo elkarte kideek: “Erasoak amaitzeko deialdi orokorra egin dugun, eta inplikaturako alde guztiei tragedia honi amaiera emateko neurriak hartzea eskatzen diegu”.



Herria auzo elkarteok Santa Ageda koplak abesteko ohiturari eusten diote.

## Zaraten Mapa osatzeko, iritzia eskatuko dute

### **DURANGO M.O.**

Zaraten Mapa Estrategikoa osatzeko prozesua hasi du Durangoko Udalak, eta astelehenean aurrera, galdetegi batean parte hartzeko eskatuko die 450 bat herritarri. Zaratek Durangoko

bizi-kalitatean duten eragina aztertu gura dute: “Ekarpenak oso adierazle baliagarriko izango dira, behar-beharrezkoak, zaratek ingurune urbanoan duten eragina ezagutzeko”. Eragin hori neurtzeko, auzo guztietan ibiliko dira inkestazailak.

Udalak prentsa ohar bidez azaldu duenez, lau inkestazaila ibiliko dira auzorik auzo, astelehenean hasi eta martxoaren 5era bitartean.

## A-8aren kontrako plataformak diputatuagaz batzartu gura du

Inguruko elkarte eta eragileekin ere bildu nahi dute plataformak



Joan zen zapatuan plataformako kideek sinadurak biltzeko postua jarri zuten Andra Marian.

### **DURANGO M.O.**

A-8 autobideko bidesariaren aurkako plataformakoe Imanol Pradales foru diputatuagaz batzartu gura dute, euren arrazoiak azaltzeko asmoz. Dagoeneko 12.600 sinaduratik gora batu dituzte, Interneten eta kalean.

Plataformako kideek azaldu dutenez, hainbat ideia dauzkate esku artean, eta Pradalesekin batzartzeko eskaera egitea da horietako bat. Bestalde, Durangaldeko eta Lea Artibaiko udal-tan mozioa aurkezten jarraituko dute, orain arte Durangon, Abadiñon eta Mañarian egin lez. Bestalde, aldebiko batzarrak burutu nahi dituzte elkarte, alderdi politiko, sindikatu eta txirritulak zein moto gidarien elkarteekin. Epe laburrean, auto-ilara bat antolatzea ere badute buruan A-8ko bidesaria kentzea aldarrikatzeko.

### **Asteburuan, sinadurak**

Horrez gainera, asteburu honetan sinadurak batzen jarraituko dute. Bihar, zapatua, Elorriean ipiniko dute mahaia 10:00etatik

14:00 ingurura, udaletxeko etar-tean. Domeka goizean, osteran, Zornotzan egongo da sinatzeko aukera.

### **Kartelak etxeetan**

Plataformako kideek azaldu dutenez, *change.org*-en bidesari honen kontra egin duten sinatzaileei e-posta baten bidez A-8

Plataformako kideak bihar Elorriean eta domekan Zornotzan izango dira sinadurak biltzen

‘Change.org’-ren bidez bidesaria kentzeko ekimenak 12.600 sinaduratik gora jaso ditu

*Peajerik* ez dioten artxiboa bidaliko diete, sinatzaileek kartela inprimatu eta beraien ibilgailuetan jartzeko.

# Aintzane Ezenarro: “Memoria anitza da, eta guztion artean eraiki behar dugu”

Memoriaren Plazan, Mari Carmen Hernandez biktimak lehenengoz berbaldia emango du Durangon

**DURANGO** Markel Onaindia Otsailaren 24tik martxoaren 2ra, Gogora institutuak antolatutako

Memoriaren Plaza egitasmoa helduko da Durangora. Bertan, azken 100 urteetako biolentzia-

ren biktimen testigantza bat eskainiko dute, erakusketa eta berbaldien bidez. Gerra Zibilak,

Frankismoak, talde armatuek eta poliziak -1960-78 artekoak errekonozitu dira oraindik- eragindako biktimak hartuko dituzte kontuan. Aintzane Ezenarro parlamentari ohia da memoria, bizikidetzeta eta giza eskubideak lantzen dituen Gogora institutuko arduraduna, eta adierazi du herritarren partaidetzeta bultzatuko dutela ekimenagaz. “Memoria anitza da, eta guztion artean eraiki behar dugu”. Ezkurdin ipiniko den karpan, norberak bere lekukotza grabatzeko edo idazteko aukera egongo da, “giza eskubideen urraketa memoria” ardatz lez hartuta.

**Paco Etxeberria, 25ean** Hilaren 24an inauguratuko dute

erakusketa, 18:00etan, eta lehen berbaldia hurrengo egunean izango da, Aranzadiko Paco Etxeberria eta Lourdes Errazti- ren eskutik, 19:00etatik aurrera. Hilaren 29an, ordu berean, Mari Carmen Hernandez (ETAk hildako Jesus Mari Pedrosa PPko zinegotziaren alarguna) eta Amaia Etxaniz (BVEk hildako Angel Etxanizen alaba) izango dira protagonista. Durangokoa den Angel Mari Unzueta bikarioak gidatuko du solasaldia.

Ezenarro Hernandezen ekarpena eskertu du bereziki, Durangon herritarren aurrean emango duen lehen berbaldia delako. “Beti baietz esaten du, bizikidetzeta eta bakeagaz konprometituta dagoelako, baina Durangon egingo duen esfortzua berezia da”.

Aitziber Irigoras alkateak garrantzia eman dio memoria elkarbanatzeari, eta herritar guztiak gonbidatu ditu ekimenera. Bozeramaileen batzordeak aho batez onartu izana nabarmendu du, gainera.



Ezenarro eta Irigoras, eguaztenean prentsari egindako aurkezpenean.

## ‘Herri txiki Infernu handi’ telebista saioa Atxondora heldu da

Astlehenean, hainbat grabazio egin zituzten

**ATXONDO** J.Derteano

ETBko ‘Herri txiki, Infernu handi’ saioko lan-taldea Atxondon izan da, astean. Aurretik Otxandion eta Mañarian egin moduan, dozena bat atxon-darren kontuak batu dituzte Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi aurkezleek.

Aurreratu dutenez, Gurrutxagak masajeak hartu ditu, eta Pagadi ehizan ibili da. Bere sasoiaren herriko eta inguruko garapenean garrantzitsuak izan ziren Arrazolako meategiak ere berba izan dituzte. Anbotoren magalean dagoen herria izanda, Anbotoko Mari- ren kontuak ere ez dira faltako. Gurrutxagak eta Pagadik bizi-

tako abenturei buruz gehiago jakin gura duenak, otsailaren 25ean du horretarako aukera. Izan ere, datorren egunean, telebista programaren bideo proiektzioa eta monologo saioa

Axpeko elizan grabatuko dute saioa egunean; gonbidapenak udaletxe zein liburutegian daude

grabatuko dituzte Axpeko elizan. Ikusle moduan bertara joateko gonbidapenak udal- txean eta liburutegian eskatu daitezke.



Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi, astlehenean, Apatan.



Aurkezle biak autobusean heldu ziren Atxondora.

## Bullyng eta ziberbullyngaren inguruko saioak, Mallabian

**MALLABIA P.B.**

Mallabiko eskolako elkarbi- zitza batzordeak bullyng eta ziberbullyngaren inguruko bi saio antolatu ditu datozen bi barikuetarako, otsailaren 26an eta martxoaren 4an, hurrenez hurren. Eskolako aretoan emango dira saioak, 17:30etik. 19:30era.

Ikastaroan, bullyng eta ziberbullyng egoeretan familiek erabili beharreko tresnak eta jarraibideak azalduko dira. Hizlaria Carmen Santamaria psikopedagogoa izango da, eta gaztelaniaz eskainiko ditu bi saioak. Haurrak dituzten familiek etortzeko aukera izateko, haurtzaindegi zerbitzua jarri- ko du elkarbizitza batzordeak ikastaroaren ordu berean.

OTSAILEKO SARIAK

**Anbotoren lagunak**

[www.anboto.org](http://www.anboto.org)  
lagunak@anboto.org  
Tel.: 946 816 558

**HITZ LIBURU-DENDA.**  
LIBURUA ETA CDa  
Jasone Osoreoren “12etan bermuta” liburu eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen “Amalur” CDa.

**UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA.**  
ESKUILA ELEKTRIKOA  
Hortzetako eskuila elektrikoa PC800 sensitive ORAL-B.

**SALTSAN KATERIN.**  
EGUEN SALTSAN  
Kalitate handiko produktuen dastaketa, 2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo, 2 ardorekin lagunduta.

**GAU-TU.**  
BURKO BISOELASTIKOA  
Burko biskoelastikoa 150 zm-ko oherako.

**FORUM SPORT.**  
PULTSOMETROA  
Polar FT1 modeloa eta uhala. Iragazgaitza.

**ABANTAILAK**

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.



# Biomasa bidezko berokuntza-sistema proiektua aztertuko dute

Udal eraikina energetikoki eraginkorrago zelan bihurtu aztertzen dabilta



Udaletxearen atzeko aldean jarriko lukete biomasa galdara.

**IZURTZA J.Derteano** Berotasunaren kudeaketari dagokionez, udaletxea bera eta beste zerbitzu batzuk (taberna, liburutegia...) hartzen dituen eraikina orain artekoa baino eraginkorragoa izateko pausoak ematen ari da udala. Esaterako, orain ez du berokuntza-sistema zentralik, eta biomasa bidezko bat jartzeko proiektua amaituta dago. Joan zen astean jaso zuten txostena. Sortutako beroari luzaragoan eusteko gomendioak ere jaso dituzte.

Egun, udaletxearen arkupeko goialdetik galtzen da gehien-

bat berotasuna, adituek jakinarazi dietenez. Gune hori material egokiekin isolatuta, beroak luzarago iraungo luke. Udaletxeako leihoak geruza bikoitzeak dira, baina markoetatik joaten da beroa. Ildo horretako diru-laguntzak noiz irtengo zain daude eskaria egiteko.

Beraz, beroa ez galtzea da eraikina energetikoki eraginkorrago bihurtzeko modu bat. Baina, beroa sortzeko moduak ere zeresan handia dauka. Biomasa bidezko berokuntza-sistema zentrala jartzeko proiektua jaso dute dagoeneko. Aukera

hori ekonomikoki bideragarria zaien jakiteko, diru-laguntza eskaerak egingo dituzte, eta ondoren erabakiko dute.

Udaletxearen atzeko aldean jarriko lukete galdara, hezetasunetik babestuko lukeen etxola baten barruan. Ohiko pellets materiala erosi behar, galdara berotzeko materiala udalaren jabetzako basoetan egingako entresaketatik ateratzea litzateke aukeretakoa bat.

Udal eraikinetako gela denetara ez ezik, pilotalekuko dutxetara ere helduko litzateke berokuntza-sistema zentrala.

## Berbalagunen bisita jaso dute, asteon, Hontza museoan

**MAÑARIA M.O.**

Durangaldeko Berbalagunak egitasmoko kideek Mañariko Hontza natur zientzien museo bisitatu dute, asteon. Hain zuzen ere, martitzenean eta atzo egon ziren berbalagunak, zientziaren munduan murgildu eta, aldi berean, euskara praktikatzeko helburuagaz.

Bego Caballero museoko beharginaren partetik jaso zuten informazioa Mañariko museora bertaratu ziren euskara ikasleek.

## Martxoaren 5ean eski irteera egingo dute

**BERRIZ A.U.**

Martxoko lehen asteburuan, Alto Campoora eskiatzera joateko irteera antolatuta du Pagotxa aisialdi elkarteak. Domeka honetan amaituko da irteeran izena emateko epea, eta Gaztelekura jo behar da horretarako, zapatuan edo domekan, 16:30etik 20:30era.

Pagotxako kideek martxoaren 5ean, 07:00etan ipini dute hitzordua Alto Campoora joateko. BBK aurrean hartuko dute irteerako autobusa.

**SEI HANKAKO MAHAIA**

**JULIAN RIOS**  
SQ-2D



## Korrika prekarietatearen aurka

Correscales, korrika prekarietatearen aurka. Zer da? Movistar-entzat lan egiten duten teknikari autonomo eta azpikontratatuak langileek 75 eta 85 eguneko greba egin zuten 2015eko udan. Hasierak hasiera, mugimendu hau Marea Urdin bihurtu da gaur egun, eta ez du amorerik emateko asmorik. Oraingoan, bizi-baldintzen duintasun materialaren aldeko kanpaina abiarazi du, hiru helburu nagusirekin:

- Bizitza duinaren aldeko borrokaren arrazoiak aldarrikatzea, lan prekarietaterik gabekoa.

- Hile hauetan estalita egon den gure borroka publikoki berraktibatzea, gizarte eta lan alorretan.

- Alde guztietako talde, mugimendu, erakunde eta pertsonak partaide bihurtzea euren esfortzu, neke eta poztasunaren bitartez, eta jasotako elkartasuna adierazteko lasterka egingo den ekimen baten bitartez. Correscales deritzo antolatutako ekimenari, eta prekarietatearen aurka egingo da korrika.

Lasterketa otsailaren 17an hasi zen, Bilbon. Guztira, 70 korrikalarik hartuko dute parte, eta 800 km baino gehiago egingo dituzte korrika. Hainbat udalerrri zeharkatu ostean, otsailaren 22an amaituko da lasterketa, Bartzelonan.

Durangok ere hartu du parte duintasunaren ibilbide edo lasterketa honetan; bart, hain zuzen ere, 23:45ean. 41. kilometroa izan da Durango. Gure aldetik, gure babes eman nahi diogu ekimen honi, halako ekimenei esker eskubide eta bizi-baldintza duin eta justuak lortuko baititugu hiritar guztientzat.

\* *Erredakzioan itzulia*

## DURANGALDEA ASTEON

### Gregorio Vicario preso Espainiaratu egin dute

**DURANGO >** 2001ean atxilotu zuten Gregorio Vicario durangarra, Frantzian, eta herrialde hartan bete du zigorra. Aste honetan, Espainiako justiziaren esku utzi dute. Madriletik hainbat delitu leporatzen dizkiote; tartean, ETAk eginiko Jose Maria Aldaya eta Cosme Delclauxen bahiketetan parte hartu izana.

### Droga trafikoa egotzita elorriar bat atxilotuta

**ELORRIO >** Otsailaren 14an, Nafarroako Oltza herriaren parean atxilotu zuen Nafarroako Foru poliziak 35 urteko elorriarra. Gorpila zulatu zitzaion, eta laguntzera joan zirenean, autoan kannabis kilo bat zeukala konturatu ziren. Atxilotutako emakumea bost urteko umeagaz zihonan autoan, A-15 errepidean.

### 50. urteurreneko afaria egingo du Udabarrik

**ZORNOTZA >** 50. urteurrena ospatzeko egingo dituzten ekitaldietarako ideiak biltzeko, afaria antolatu dute Udabarrik Dan-tza Taldekoek. Ibarra Sagardotegian egingo dute, martxoaren 11n. Azaldu dutenez, joan gura duenak, 30 euro sartu beharko ditu 2095-0023-50-9106112299 (BBK) kontu korrontean, martxoaren 4a baino lehen.

## IRITZIA

### Gutuna

Hara non goazen bi lagun Durangoko kaleetan zehar paseatzen, hizketaldi oparoan, barre algara artean, eta, zast! Aldatu zaigu aurpegia, joan dira barreak, eta etorri da haserrea.

*“Se necesita dependencia(tardes). Edad: 20-22 años. Entregar c. V. Y fotografia en esta zapateria”*

Elkarri begiratu diogu lagunak eta biok. Dirudienez, bizi garen mundu honetan gizonezkoek ez dute saltzaille lanetarako balio, ematen du, 22 urtetik gorako emakumezkoek ezin dutela komertzioten lanik egin. Zapatak saltzeko, langilearen argazki bat behar

dute, agian, azal kolorea ez delako aproposa saltzaille lanetan ibiltzeko, edo sudurpeko ileek bezeroak uxatuko dituztelako.

Nazkatuta gaude. Durangoko komertzio eta taberna askotan ikusi ditugu horrelako kartelak, hau da, lan eskaintzetan emakumeon-ganako etengabeko erasoak. Kafea, gin-tonicak edo freskagarriak prestatzen badakigu, zapatak, arropak edo bidaiak saltzen ere bai, eta horretarako, ez dugu idatzi gabe dauden lege matxistarik behar, ezta nahi ere!

Utzi kalean, eskolan, parkean, lanean... aske jarduten!

Luisa Oleaga eta Miren Erdoiza (Durango)

astekaria@anboto.org  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

## **> Berbaz**

Amaia Iriarte | Medikuntzan lizentziatua. Homeopatian espezializatua eta erizaintzan diplomatua | Arrasate, 1978

# “Osasunean gure inguru guztiak eragiten du; lantokia eta etxea horren zati dira”

Berdeago, Ingurumen Jasangarriaren azoka hartuko du, asteburuan, Durangoko Landako Guneak.



**> BERBAZ** Aitziber Basauri 'Toxikorik gabeko etxebizitzak' izango dituzte hizpide domekan, 18:30ean, Berdeago azokan. Inhar Arrizabalaga arkitektoak eta Amaia Iriarte medikuak etxeetan egon daitezkeen partikula toxiko moten inguruan eta hauek osasunean duten eraginaz jardungo dute. Sortutako hainbat arazori zein irtenbide eman ere azalduko dute.

**Eragin zuzena dute etxebizitzek bertan bizi diren ongizatean. Nola da hori?**

Gure osasunean gure inguru guztiak eragiten du, eta horren zati garrantzitsua dira etxea eta lantokia, eguneko ordu asko

pasatzen ditugu-eta hor. Gure inguruaren zati izanik, bertan dauden gauzek kalte edo onura egin diezagukete. Eragin zuzena izan dezakete gure osasunean.

**Gure osasunean eragin dezaketen zeintzuk partikula toxiko aurkitu genitzake etxean?**

Hiru taldetan banatu daitezke: kimikoak, biologikoak (akaroak, hondooak, lizuna...) eta ikusten ez ditugun energia edo eremu elektromagnetiko eta elektrostatikoak.

**Azken talde horretan etxeko tresnak sartzen dira?**

Bai. Indukziozko sua piztuta dagoenean, adibidez; eta uhin elek-

tromagnetikoak irten daitezke mikrouhin-labearen egitura nola dagoen itxita; hozkailuaren bateriak edo motorrak ere eremu elektromagnetikoa sortzen du. Hori oheburuaren hormari itsatsita egonez gero, sortutako eremu elektromagnetikoak guran eragin dezake logelan gaudenean. Etxetik kanpo dauden antenak edo bestelako egiturak ere izan daitezke eragileak.

**Eta nola egin aurre horri?**

Mikrouhin-labea jartzerakoan, ez gaitzen gelditu aurrean. Eta, indukzioa pizterakoan, urrundu egin gaitzake, eremu elektromagnetikoek indarra galtzen dute-eta distantziarekin.

“

*Mediku moduan, norbait etxebizitza begiratzera joatea gomendatzen dut nik beti”*

“

*Sozialki, gauza batzuetaz kontzientzia hartzeko denbora bat behar izaten da”*

**Toxiko kimikoak garbiketa produktuetan aurkitu genitzake?**

Talde oso zabala da hori. Garbiketarako produktuak izan daitezke, bai. Baita pinturak eta bernizak ere. Materialez ere eragin dezakete, dituzten osagai kimikoen arabera.

**Partikula toxikoek zelako eragina sortu dezakete gorputzean?**

Oso zabala izan daiteke eragina. Toxiko kimikoak kantzerigeno lez sailkatuta daude. Dosi altuetan dira kantzerigenoak, baina, ez gara jabetzen dosi txikitik eta, kronikoki horren arriskuan egonda, ere eragin diezagukela. Lizunak, adibidez, eragin zuzena du arnas aparatuan. Beraz, etxeko hezetasuna gutxituta, arnas-aparatuko gaixotasun kroniko asko hobetu egin daitezke.

**Inguru honetan hezetasun handia dago.**

Bai, eta etxe batzuetan kondentsazio eta umedade arazoak egon daitezke. Askotan, ez gara konturatzen horrek osasunean eragin handia izan dezakela. Neguan etxea itxita mantentzen dugu beroa ez joateko, eta kondentsazioa sortzen da. Askotan, sasoi batean lez, etxea aireberri- tzea da kontua, eta, gero itxi.

**Eta, toxiko fisikoei dagokienez?**

Oso zaila da horiek osasun arazo konkretuekin lotzea, eremu elektromagnetiko edo elektroestatikoko sentsibilitate edo hipersentiberatasun bat egon

ezean. Toxiko kimiko eta fisikokoek hormona- eta nerbio- sistemak aztoratzen dituzte. Erregulatzen gaituzten sistemak aztoratzean, gorputzean sortutako desoreka horretan sintoma asko sortu daitezke.

**Jabetzen gara horretaz?**

Ez dut uste oso kontziente garenik. Ikusten ez diren gauzak dirrelako eta, dosi txikitik, kronikoki, horren arriskuan egotean kausa-eragin lotura hori egitea zaila delako.

**Nola egin genezake gure etxea osasuntsuagoa?**

Mediku lez, norbait etxea begiratzera joatea gomendatzen dut beti, bioeraikuntzan formatuta dagoen arkitekto bat, edo horrelako azterketak egiten dituen norbait. Badaude eremu elektromagnetiko edo elektroestatikoko begiratzeko aparatuek, badaude moduak ondoak, lizuna... laborategietan testatzeko. Materialetan dauden toxikoak ikusi daitezke fitxa teknikoak ikusita.

**Sentsibilizazio falta bat dago?**

Gauza berria dela esan daiteke. Arazo guztiok ez ziren existitzen orain 50 urte. Sozialki, gauza batzuetaz kontzientzia hartzeko denbora bat behar izaten da. Egon daitezke batzuk sentsibilizatuago: euren etxe eta lantokiak begiratzen, aldaketaren batzuk egiten... Baina, agian, sozialki ez gara kontziente, gauza berriak dira, industrializazioarekin sortu dira.

**Etxebizitza politikak eragin zuzena izango du gai honetan, ez?**

Etxebizitzak eraikitzeke erabiliko materialak ikusita, herritar moduan bide onetik ez gozela esango nuke. Materialak gero eta sintetikoagoak dira, eta produzitzeko moduagatik gero eta toxikotasun gehiago sortzen dira. Arrasto ekologikoa gero eta altuagoa da.

**Zer gomendatuko zenuke toxikorik gabeko etxea izateko?**

Etxebizitza ikusi eta baloratu beharko genuke. Askotan, ezin dugu aukeratu non biziko garen; arrazoi ekonomikoengatik, adibidez. Baina, ze pintura erabili, eta ipiniko ditugun altzariak nola tratatu edo sortu dituzten begiratu genezake. Garbiketarako erabiliko ditugun produktuak aukeratu genitzake. Askotan, toxikotasun gehiago kendu genezake gauza txikiekin, aldaketa handiagoak planteatuta baino.

# ‘Olatu bat daukat sabelean’ ipuina aurkeztuko dute, otsailaren 26an, Berrizko Kultur Etxean

Miren Amurizak idatzi eta Sandra Hernandezek ilustraturiko ipuina da ‘Olatu bat daukat sabelean’, negarra gaitzat duen istorioa



**> LITERATURA** Itsaso Esteban Otsailaren 26an, 19:30ean, Berrizko Kultur Etxean aurkeztuko dute Miren Amurizak idatzi eta Sandra Hernandezek ilustratu duen *Olatu bat daukat sabelean* ipuina. Egileen ahotik jasoko dute Kultur Etxera bertaraten direnek proiektu horren sorreraren berri, eta, zelan ez, ipuina ikusentzuteko aukera ere izango dute.

Datorren barikuko hitzordu horretarako prest edukiko dituzte argitaratu dituzten 200 aleak, eta bertan eskuratu ahal da *Olatu bat daukat sabelean*,

prezio sinboliko batean. Berrizko Udalak herritarren euskarazko sorkuntza laguntzeko daukan diru-laguntza jaso dute sei urtetik gorako umeei zuzenduriko ipuina argitaratzeko. Egileek aurreratu dutenez, liburuaren salmentatik batzen duten dirua euskarari loturiko herriko ekimenen batera bideratuko dute.

2014an abiatutako proiektua da Amuriza eta Hernandezen elkarlanetik sortutako hau. “Etxepare ipuin lehiaketara bidaltzeko egin genuen lehen bertsio bat”, gogoratu du Amurizak. “Ez genuen irabazi, baina ordu-

---

Datorren barikuko aurkezpenean, prezio sinboliko batean salduko dituzte liburuaren aleak

---

Idatzi, ilustratu, bikoiztu eta grabatu, dena Berrizen eta berriztarrek egindakoa da ‘Olatu bat daukat sabelean’

---

tik, lana ontzen jarraitu dugu”. Hainbat lagunaren ekarpenekin joan dira lana borobiltzen. “Genero ikuspegiari loturiko hainbat aldaketa egin ditugu, esaterako”, gehitu du Hernandezek. “Hasieratik, argi izan genuen protagonistak genero aldetik mugatzerik ez genduela nahi, baina hasierako bertsioan amama ipini genuen zaintza lanetan”. Lagun batzuen ekarpena aintzat hartuta, rol horiei buelta eman diete: aitatik dihardu, ipuinean, orain, zaintza lanetan.

Elkarrekin sortuz elkarrengandik asko ikasi dutela, eta sor-

kuntza prozesua oso polita izan dela azpimarratu dute sortzaile berriztarrek. Amurizak lehenago ere argitaratu izan ditu ipuinak, baina berak ilustraturiko ipuin bat argitaratzen lehen aldiz izan du Hernandezek.

## Negar egiteaz

Negarra eta negarraren inguruko emozioak dira ipuinaren gaia, eta irakurtzen duten helduei umeei gaiaz berba egiteko aukera eskaini gura diete. “Beste emozio batzuk adierazteko ohituago gaude, baina negar, etxean eta bakarrik egiten dugu: ezkutatu beharreko zerbait biltzen”, dio Amurizak. Ume zein helduok, barruko olatu horri ateratzen utzi beharko geniokeela uste dute liburuaren egileek.

## Ikusentzuteko ipuina

Jokin Elortza musikariak grabatu eta editatu duen doinua, eta Sandra Hernandezek diseinaturiko animazioak biltzen dituen DVD bat ere prestatu dute liburuarako. Hainbat berriztarren ahotsean grabatu dute *Olatu bat daukat sabelean*: Aitzol Elortzak, Maixa eta Antxon Izarrek, Mikel Estebanek eta Aizpea Macarrok ipini dute ahotsa. “Proiektu honetan parte hartu dugun berriztar guztion elkarlan hori uste dut dela proiektu honen baliorik handienetakoa”, azpimarratu du Amurizak. Idatzi, ilustratu, bikoiztu eta grabatu, dena Berrizen egindakoa da *Olatu bat daukat sabelean*.



Ipuina hainbat berriztarren ahotsean entzuteko aukera ere ematen du liburuak.



‘Olatu bat daukat sabelean’ liburuaren azala.

## 40 talde arituko dira, Elorrioko Akadantz lehiaketan, bihar

Lehiaketaren emanaldi bi hartuko ditu Elorrioko Arriolak, bihar; 16:00etan bata, eta 19:30ean bestea

### > DANTZA I tsaso Esteban

Euskal Herriko, Errioxako, Burgosko eta Kantabriako dantzariak osaturiko taldeek parte hartuko dute, aurten, Akadantz lehiaketan. Imanol Garaizabal antolatzaileak azaldu duenez, azken urteetan Estatuko hiri handietatik etorritako taldeek irabazi dituzte sarietako asko, eta parte hartzea geografikoki gehiago mugatzea erabaki dute, aurten: "Izan ere, ekimenaren helburu nagusietako bat, bertako dantzariak bultzatzea da, eta hiri handietatik etorritakoek sari denak irabazteak ez du helburu horretan laguntzen". Kale dantzen bertako panorama da Akadantz-en ardatza, eta horregatik egin dute aldaketa.

Dantza taldeen izen-emate kopuru handiak bultzatuta, bestalde, beste aldaketa bat ere izango du aurten, Akadantz

jaialdiak: saio bi izango dira, bihar, Elorrioko Arriolan. Gaztetxoan eta bikoteen saioak izango dira, 16:00etan, eta Master Urban eta sail esperimentalekoak, 19:30ean. Lehenengo emanaldian 19 taldek parte hartuko dute, eta 21ek bigarrenan.

Azken urteetan bezala, aurrez agortuta daude emanaldietarako sarrera denak. Elorrioko antzokia dantzazalez beteko da, beste urte batez. Eta aurreko edizioetan bezala, Master saileko irabazleak apirileko Bilboko Break On Stage jaialdian aritzea jasoko du saritzat.

Lehiaketaren azken edizioetako maila altua nabarmendu du Garaizabalek: "Talderik gehienak dantza akademietatik etorri dira azken urteetan, eta teknikoki hobeak, sinkronizatuagoak dira aurkezten dituzten koreografiak".



Argazkiak: Patxi Granados

### GEURE DURANGALDEA

**JON ANDER URKIAGA**

Irakaslea



### Kremailera bat begietan

Lehenbiziko malutek maiteki- ro zabaldu dute mihise lisatu berria zure bularretatik. Hezurretaraino sartu zait zure arnasaldi bakoitzaren hotza. Eta euri tanta bakoitza isuri bako anpuluaren ordainetan ailegatu da. Heldu da udaberria. Baina nekez. Kostatu zaio.

Ispiluaren aurrean ikusten zaitut, lurrundutako bainugela batean. Eskuei eragin diezu beira lauaren gainean, eta hoztasunak tente jarri dizkizu besoko ile nerabeegiak. Eztarriko korapiloak askatzen asmatuko bazenu, barruko loturen mesedetan... Izu-laborriak hartu zaitu aspaldian, burua burkoaren azpian ezkutatu, eta beti gaur izan dadila amesteko desioz umel.

Zure begiek ez diote gezurrik. Ahoak ere ez; ez duzu balio. Baina hotsik desafinatuenek ere ez dituzte zure kordak astintzen. Zure ermamiak dantza melodiko bati ekin diote, ispiluan hanpatutako lurrinaren gainean soineko distiratsuz jantzitako izotz-patinatzaileak bailiran, jira eta bira eta salto eta jauzi, baina ihesaldirik gabeko itxitura batean gatibu. Halaxe zaude zu.

Beldurrari so, parez pare. Iraganak taupadak zenbatuta balitu bezala, eta etorkizunari arnasa falta zaiola jakinik. Urteen joanean jabetu zara aurreiritziek ezer gutxi balio dutela, eta damuak berandu iristen direla beti. Nahigabeak eta bizipozak labirinto berean egin dezakete topo. Baina, lasai, ohartuko zara bizitza ez dela mataza bat baino, bere bi erpinekin, hasi eta buka. Eta ederrena ez dela abiapuntutik helmugara salbu iristea, bidean behin eta berriz galtzea baino, hari milimetro bakoitzarekin sokasaltoan ibiltzeko.

## Bartolome Ertzillako 9 ikasle Euskadiko Orkestran

Euskadiko Ikasle Orkestrarako hautatu dituzte



Hiru orkestra osatu dituzte hautaturiko EAEko 238 musika ikasleekin.

### > MUSIKA I.E.

Eusko Jaurlaritzak duela hamar urtetik bultzatzen duen Euskadiko Ikasleen Orkestran jotzeko hautatuak izan dira Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskola eta Kontserbatorioan ikasten duten bederatzigazte.

EAEko musika eskolan eta kontserbatorioetan ikasten duten 13 urte arteko musikariek osatzen dute Orkestra Txikia, 13 eta 15 urte artekoek Gaztea, eta 15 eta 18 urte artekoek orokorra. Raffaella Acellaren zuzendaritzapean, aurten lehenengoz, osatu dute Orkestra Txikia.

Euskadiko Ikasleen hiru orkestra hauek osatzeko, guztira, 238 ikasle aukeratu dituzte hautaprobetan. Durangoko Bartolome Ertzillan ikasten duten ikasle hauek daude hautatuen

zerrendan: Orkestra Txikian arituko dira Irati Gaztelumendi eta Irati Gomez; Orkestra Gaztean June Iturriaga, Maite Azueta, Alexandru Blas, Irene Goiri, Lide Etxeberria eta Matxalen Ocariz; eta orkestra nagusian Jone Erzilla.

### Kontzertuak

Udaberrian eta udan hainbat kontzertu eskainiko dituzte Euskadiko Ikasleen hiru orkestrek. Orkestra Txikia eta Gaztea, apirilaren 2an Gasteizen eta 3an Tolosan arituko dela iragarri dute, esate baterako. Gazte Orkestrak, bestalde, Euskal Herrian ezezik, Katalunian ere joko du, ekainean eta uztailen. Juanjo Menaren zuzendaritzapean arituko da Gazteen Orkestra emanaldi horietan.

**Edipo**  
Companhia Do Chapit6

Otsailaren 21ean  
19:00etan

Sanagustinalde, 12  
Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

PLATERUENA  
Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**

EGUNEKO MENUA  
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

**FILM BERDEA GUNEA**

OTSAILAK 19  
19:00etan  
FILM BERDEA GUNEA  
IKUS-ENTZUNEZKOA

**FILM BERDEA GUNEA**

OTSAILAK 20  
21:00etan  
RUPER ORDORIKA  
KONTZERTUA

**FILM BERDEA GUNEA**

OTSAILAK 21  
10:30etan  
FILM BERDEA GUNEA  
IKUS-ENTZUNEZKOA



**RENAULT**  
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

# GAURSA OCASIÓN

## ESPAZIO ZABALA

### BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziario-baldintza ezin hobek eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



**RENAULT**  
**OCASIÓN**

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

**GAURSA**

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA [www.gaursa.com](http://www.gaursa.com)

Juan Mari Estancona | Eskultorea eta pintorea | Zornotza, 1956

## “Duela 15 urte sortu zitzaidan artearekiko jakin-mina; ordutik pasioz bizi dut”

Hilaren 26ra arte daude Estancona zornotzarraren artelanak, Zornotzako Zelaieta Zentroan ikusgai

> **ARTEA** Itsaso Esteban

‘Udako gau beroa’ izenburua du Zornotzan ipini duzun erakusketak. Nondik dator izena?

Beroa eta pasioa iradoki gura ditut erakusketaren izenburu horregaz: erakusketan ikusgai dauden koadroetan islatzen den beroa eta eskulturgintzarekiko sentitzen dudana pasioa.

**Pintura ez duzu hainbesteko pasioagaz bizi?**

Eskulturgintzaren osagarri gisa bizi dut pintura: gehiago motibatzen nauen eskulturgintzan jardun ostean, erlaxatzeko modua da niretzat margotzea. Eskulturgintzan emandako indarrak berreskuratzeko modua.

**Izenbururik bako koadroak dira.**

Ikusten duzunez, ez dira koadro errealistak, fantasia da irudikatutako guztia. Ikusten denetik haratago, ez daukat beste azalpenik: koadro batean uztarturiko kolore eta formak dira. Ez dago beste konnotazio psikologiko edo soziologikorik. Hain zuzen, horregatik ez diet lanei izenbururik ipintzen. Ez dut jendearen interpretazioan eragin gura.

**Zelan lantzen dituzu koadroak?**

Oso modu intuitiboan lantzen ditut gehienak: materia eta kolorea mihisean zabaldu daitezen uzten dut, gustuko ditudan formak lortu arte. Aldiz, badaude beste koadro batzuk aurrean handiagoa eskatzen dutenak. Erakusketa honetan ikusgai dauden pinu azikulagaz egindako koadroak, esaterako.

**Askotariko materialak darabiltzazu zure sorkuntzan. Gustuko duzu esperimintatzea?**

Bai, oso gustuko dut. Autodidakta naizenez, koadro zuri baten modukoa naiz neu ere: lan bakoitzagaz sortzen zaizkidan beharrei erantzun guran ibiltzen naiz probak egiten. Guztia da neure barruan sorturikoa.

**Erakusketako eskulturetan, eskuak eta giza figura agertzen dituzu. Mugikorrari heltzen dio eskuetako batek, eta kala lore bat eskaintzen du beste batek...**

Bai, oso adierazkorak dira eskuak, esanahai handikoak: zerbait eutsi edo eskaintzeko baliatzen daitezke. Mugikorraren kasuan, komunikaziorako teknologiek



‘Udako gau beroa’ izenburua du Juan Mari Estanconak Zelaieta zentroan ipini duen erakusketak.

eskaintzen eta, aldi berean, kentzen digutenaz dihardut. Kala lorea eskaintzen duen figuragaz, erakusketara datorrenari ondoetorria eman gura izan diot. Greziako harrizko eskulturetan bezala lantza bat barik, lore bat ipini diot eskuetan.

**Duela urte gutxi arte ez dituzu zure artelanak erakutsi. Noiz eman zenuen pausoa?**

Hemen inguruan, Durangoko Arte eta Historia Museoan ipini nuen lehenengo erakusketak, 2012an. Eta 2014an erakutsi nuen lana, Zornotzan.

**Ez daramazu urte asko arte sorkuntzari lotuta, ezta? Helduaroan ekin zenion eskulturgintza eta margongitzari.**

Gorputz Henkuntzan lizentziatua naiz ni ikasketaz. Duela 15

urte sortu zitzaidan artearekiko jakin-mina, eta ordutik, pasio handiz bizi dut. Hamabost urteotan, pixkanaka joan naiz sorkuntzaren munduan barnertzen: zuragaz esperimintatzen hasi nintzen, gero eskulturei kolorea ematen, koadroak margotzen gero...

**Zelan sortu zitzazun, duela 15 urte, artearen munduan barnertzeko grina hori?**

Asturiasen geundela, zura lantzen zebilen artisau baten jardunak liluratu ninduen, eta jakin-min handia sortu zitzaidan. Gauza anekdotikoa izan zen, garrantzi gehiagorik bakoa, baina une horretatik aurrera hasi nintzen ni ere sortzen. Nire bizitzan, lehenago, eskuartearen sekula hartu barik neukan gubia bat edo pintzel bat...

**Zailenetik hasia dela ematen du zura lantzeari ekiteak: ez duzu teknika inork irakatsi?**

Ez, neure erritmorik ikasten joatea da, hain zuzen, gura izan dudana. Nahiz eta jakin niri bururatu zaizkidanak baino teknika aproposagoak egongo direla, gustuko dut neure teknika originalak baliatzea.

**Zer daukazu orain eskuartearen?**

Sortzea eta sortzea. Hori da gehien betetzen nauena. Bitxia da, pasio ia ulertezina da sorkuntzagaz sortu zaidan hau: lehenago hain urrun sentitzen nuen errealtate horretan zelan barnertatu naizen hainbeste. Egunean sei-zortzi orduz ibiltzen naiz sorkuntza lanetan, eta beti darabilt ideien bat buruan. Sarritan hiru-lau lan izaten ditut eskuartearen.

## Chapitok konplexurik bako ‘Edipo’ dakar

Asteburuan, Durangaldean eskainiko dute obra



Tragedia greko klasikoari umoretik heltzen dio Chapito taldeak.

> **ANTZERKIA** I.E.

Tiago Vieigas, Marta Cerqueira eta Jorge Cruz dira Chapito talde portugaldarraren *Edipo* obraren protagonistak: soinean jantzi berezirik ez daramaten hiru aktore. Eszenografia eta musikarik bako ikuskizuna da, asteburuan, Durangaldean eskainiko duten hau, eta aktoreen gorputzen mugimenduak eta imajinazioa ditu osagai nagusi. Mimika, clowna eta dantza.

Lisboako talde horrek egin ohi duen eran, ikuspuntu umoretsu batetik landu dute Sófoclesen *Edipo* tragedia klasikoaren bertsio hau. Taldekideen berbetan, “Edipo berrasmatu” dute, “konplexurik barik” jardunda. Gaur, Elorrioko Arriolan, eta domekan, Durangoko San Agustín kulturgunean, izango da lan horren emaitza ikusgai.

## Bizkaiko Bertsolari Gazteen txapelketa hasi da, asteon

> **BERTSOLARITZA** I.E.

Aste honetan hasi da Bizkaiko Bertsolari Gazteen Txapelketaren XXIV. edizioa. Bizkaiko beste horrenbeste eskualde ordezkatzuz, zortzi taldek parte hartuko dute txapelketa horretan, tartean, Durangaldekoak. Durangaldeko bertsolariekin batera, Arratia, Bustuarialdea, Enkarterri eta Ezkerraldea, Hego Uribe, Lea-Artibai, Uribe-Butroe eta Uribe-Kosta eskualdeetako parte-hartzaileak ere izango dira txapelketan: 48 bertsolarik kantatuko dute.

Bizkaiko Bertsozale elkar-tearen, BBKren eta Ikastolen Elkar-tearen ordezkariak, eta Jone

Uria bertsolariak aurkeztu zuten txapelketa, martitzenean. Azaldu zutenez, sei sailkapen saio egingo dituzte Bizkaiko Bertsolari Gazteen Txapelketaren barruan: Igorren egin zuten lehenengo saioa, eta otsailaren 23an, Durangoko Institutuan izango da bigarrena. Durangaldeko bertsolariak Enkarterri eta Ezkerraldekoekin lehiatuko dira Institutuko saioan.

Igorreko eta Durangoko saioen ostean, Sopelan eta Markinan jokatuko dituzte beste bi kanporaketak. Martxoan egingo dituzte finalurreko biak, eta martxoaren 18an, Bilboko Kafe Antzokian jokatuko dute finala.

**Eduardo Ubis | Amorebieta Futbol Taldeko jokalaria | Logroño, 1987**

hartan, eta oraindik kontaktua mantentzen dut beraiekin. Oso urte ona egin genuen denboraldi hartan.

**2012ko Ubisekin alderatuz, zertan hobetu duzu?**

Lau urte igaro dira, eta esperientzia gehiago daukat. Honez gain, hegalean aritzetik aurrelari moduan jokatzera pasatu naiz.

**Dagoeneko 10 gol sartu dituzu, zure markarik onena. Zure kirol momenturik onenean zaude?**

13 jardunaldi geratzen dira, hau luzea da, eta ahalik eta gol gehien sartzen saiatuko naiz. Golen arloan ez dut toperik jarri nahi.

**Noraino heldu daiteke aurtengo Amorebieta?**

Guk oso argi daukagu aurrena 46 puntu lortu behar ditugula. Hortik aurrera, ikusiko dugu ea noraino heldu gaitzkeen. Egocera onean gaude, eta borroka oso polita egongo da igoera postuak lortzeko.

**Logroñokoa izateaz gain, bi denboraldi eman zenituen zure herriko talde den Unión Deportiva Logroñesen. Talde errioxarreko ze oroitzen gordetzen dituzu?**

Oroitzen onak ditut. Azken urtean, nahiz eta minutu asko izan ez, igoera oso gertu izan genuen. Igoerako kanporaketetik kanpo gelditu ginen, era oso polemiko batean, epaile aldaketa eta guzti izan zuen partidaren. Familia eta lagunak nituen, baina jokalariei minutuak jokatzeko gustatzen zaigu.

**Zelan ikusten duzu Carlos Pousoren aginduetara lehen multzoan bigarren doan Logroñes taldea?**

Pare bat partidutan joan naiz Las Gaunaseran, eta oso maila ona daukate. Lehengo urtean baino askoz talde handiagoa du, aurren, Logroñesek. Honez gain, oso talde gogorra da defentsan, oso gol gutxi jasotzen dituen. Ez da erraza punturik lortzea beraien zelaian. Igoerarako borrokan egongo dira, seguru.

**Sinatuko zenuke playoffetan Las Gaunaseran Amorebietarekin itzultzea?**

Ilusio handia egingo zidan. Politza izango zen nire herrira itzultzea, eta are gehiago Amorebietarekin jokatzeko bertan. Ea bi taldeok maila onean bukatzen dugun denboraldia, eta playoffetan sartzen garen.

## “Oso egoera onean gaude, eta borroka polita egongo da igoera postuetan”

Azken lau partidetan lortutako emaitza txarrak alde batera utzi, eta gora begira jarri nahi du

**> FUTBOLA** Paul Bustindui

Orain lau urte Amorebietarekin urte paregabea izan ondoren, bere jaioterriko Logroñesen eman ditu azken bi urteak. Udan, talde urdinaren eskaintza jasotzean, ez zuen pentsatu ere egin, eta bere bigarren etxera bueltatu zen. Amorebietaren denboraldiko erreferentea da 10 gol sartuta, inoiz egin duen markarik onena. Taldea edozergatik borrokatzeko prest ikusten du 27 urteko jokalarierrioxarrak.

**Denboraldi hasiera zail baten ostean, partidek aurrera egin ahala goiko postuetan finkatu zarete. Zein emaitza jarriko zenioke lehen itzulian?**

Taldea mailara egokitu aurretik emaitza kaskarrak izan genituen. Orduan aurrera, puntu asko pilatu ditugu, eta nik uste dut emaitza onarekin bukatu dugula lehen itzulian, hasieran pentsatutakoa baino puntu gehiagorekin.

**Azken lau jardunaldietan puntu bakarra lortu duzue. Zer falta zaio talde urdinari azken partidetan?**

“**Hasieran pentsatutakoa baino puntu gehiagorekin bukatu dugu lehen itzulian**”

Etxean jaso ditugun azken bi porrotak gogorrak izan dira. Ebroren aurka ez ginen fin ibili, eta, pasa den astean, Real Madrid Castillaren aurka bat gutxiagorekin, zaila da. Etxetik kanpora zailagoa da puntuak lortzea. Azken jardunaldietan ez gabilta ongi, baina 13 jardunaldi geratzen dira, eta 46 puntu lortu behar ditugu mailari eusteko. Helburu hori lortzean hasiko gara gauza handiagoetan pentsatzen.

**Urritxen denboraldi osoan erakutsi duzuen trinkotasuna berreskuratu daiteke?**

Azkenean, denok erasotzen dugu. Eta denok defendatu. Ebroren aurka aukera asko izan genituen, eta ez genuen golik sartu. Beraiek, osteran, behin heldu

eta gola sartu ziguten. Real Madrilen aurkako lehen, 30. minutuan atera ziguten txartel gorriak partidua erabaki zuen. Defentsako intentsitate hori berreskuratzea espero dugu.

**Datozen bi partiduak funtsezkoak izango dira goiko postuei eusteko. Realaren bigarren taldearen aurka Zubietan, eta gero, Real Union hartuta Urritxen. Bai. Zapatukoa, Zubietan, oso partida zaila izango da, baina emaitza on baten premian gaude sailkapenaren goikaldean jarraitzeko. Urritxen, osteran, oso talde gogorra garela erakutsi dugu, eta oso zail jartzen dizkiogu gauzak aurkariari. Partidak irabazten hasi behar dugu, eta espero dut asteburu honetan izatea aurrena.**

**2011-2012 denboraldia Amorebietan igaro ostean, bi urte eman zenituen Unión Deportiva Logroñesen, azkena espero baino aukera gutxiagorekin. Zerk animatu zintuen Amorebietaren eskaintza onartzera?**

Azken urtea, Logroñon, maila pertsonalean gogorra izan

“**Amorebietara itzultzeko eskaintza egin zidatenean, ez nuen ezta pentsatu ere egin**”

zen, oso minutu gutxi jokatu baintuen. Amorebietan ibili nintzen urtean play-offak lortu genituen, eta oso urte polita izan zen. Taldekide, klubeko jende eta zaleen oso oroitzen gordetzen nituen. Amorebietara bueltatzeko eskaintza egin zidatenean, ez nuen pentsatu ere egin. Oso gustura nago, eta gauzak oso ondo doaz.

**32 partidutan 9 gol egin zenituen urte hartan elastiko urdinarekin. Amorebietan eman zenuen lehen urteko ze oroitzen gordetzen dituzu?**

Oroitzen onak baino ez ditut. Play-offetan aurrera jarraitu ez izana, agian, txar bakarra. Urte harrigarria izan zen bai maila pertsonalean bai talde modura. Oso lagun onak egin nituen urte

# Betigol emakumeen areto-futbol talde berria sortu zute, Zornotzan

Jokalari eta bazkide bila dabilta liga ofizialean parte hartzeko helburuz



Gaur egun Betigol areto-futbol taldea osatzen duten kideetako batzuk.

**> ARETO-FUTBOLA** **J.Derteano** Emakumeen areto-futbolak ordezkarri berri bat du Durangaldean: Zornotzako Betigol taldea. Iaztik elkarrekin entrenatzen ziharduen lagun talde batek pauso berri bat eman eta Betigol kirol kluba sortu du. Horrela, datorren denboraldian hiru talde arituko dira liga ofizialetan: Zornotzako Betigolekin batera, Durangoko Sasikoa eta Elorrioko Buskantza.

Ama talde batek, nerabezarotan areto-futbola praktikatzeko zuten sasoia gogoratzen hasi zenean, berriro elkartzeko eta futbolaz gozatzeko erabakia hartu zuten. Orduan, jende bila hasi ziren, eta, gaur egun, 12 jokalaria dituzte taldean.

Datorren denboraldian liga ofizialean sartu gura dute. Lehenengo pausoa klub bat sortzea izan da. Orain, jokalaria gehiago eta baliabide ekonomiko handiagoen bila dabilta: "15 urtetik gora duten denentzat atek zabalik ditugu, izan Zornotzako, Durangaldekoa zein

Bizkaia mailakoa", dio Eurne Azpitarte Betigol taldeko kideak. Gaur egun ere, hainbat herritako emakumeak daude taldean: portugaletear bat eta muxikar bi, esaterako. Jokalari batzuk aurretik areto-futbolekin ibilitakoak dira, eta futboletik etorri denik ere badago. Beste batzuek, ordea, lehenengo esperientzia dute. Orain, ahalik jenderik gehien batu, eta apurka-apurka taldea lantzen joan gura dute, datorren denboraldira begira.

Gaur egun, astean bitan baztzen dira Ganen: martitzen eta eguenetan, 20:00etan. Interesatutak hara joan daitezke edo [edurne.betigol@gmail.com](mailto:edurne.betigol@gmail.com)-era idatzi dezakete.

## Transexual bi taldean

Klub berriak sustatu gura dituzten balioen artean tolerantzia dago. Transexual bi dituzte taldean, eta kolektibo horrek jasan izan duen bazterkeriaren aurrean aukera berdintasunaren eta elkartasunaren aldarria

lau haizetara zabaldu gura dute: "Hesi eta bazterkeriarik bako emakumeen talde bat sortzeko

"Hesi eta bazterkeriarik bako emakumeen talde bat sortzeko bidean bidelagun ditugu transexual biak"

bidean bidelagun izango ditugu biak". Bata zornotzarra da, eta bestea portugaletearra.

**Elkartasuna behar dutenekin** Solidaritatea da taldeak sustatu gura duen beste balioetako bat. Beraz, alde batetik, bazkide eta abonatu bila dabilta kluba sortzeko eta liga ofizialean parte hartzeko eragingo dizkien gastuei aurre egiteko. Baina, aldi berean, beren filosofiari jarraituz, diru-sarreraren zati bat Zornotzako Accion Social Amorebieta elkarteari emango diote. Elkarte honek beharrezkoak diren zornotzarrei laguntzen die.

## Aitor Ajuria podiumera Candanchuko eski proban

**> ESKIA** Paul Bustindui

Pasa den asteburuan Candanchun jokatuako eski proban, hirugarren postua lortu zuen Aitor Ajuriak kronoigoera eta bakarkako mailan. Proba hau Espainiako eta Euskadiko koparako izan zen puntuagarria. Eski lasterketan aritzen den lehen urtea da Ajuariarena, eta presiorik gabe ikasi nahi du: "Oraingoz, emaitzei ez diet erreparatu nahi, disfrutatzea baino ez da nire helburua". Candanchukoaz gain, Baqueirako eta Cerlerreko probetan ere hartu du parte otxandiar gazteak.



## Narbaiza eta Lanbarri Euskadiko txapeladun

**> ATLETISMOA** **J.Derteano**

Nora Narbaiza zaldibartarrak (Durangaldea Running) eta Eneko Lanbarri durangarrak (Durango Kirol Taldea) urrezko domina bana irabazi zuten pista estaliko Euskadiko txapelketan. Biak junior mailan nagusitu ziren; Narbaiza 800 metroko proban, eta Lanbarri 200ekoan. Lanbarri, gainera, brontzea jantzi zuen 400ekoan.

Zilarrezko domina banarekin itzuli ziren Ander Hilera durangarra (1.500 metrokoan), Joseba Ogiza elorriarra (salto hirukoitzean) eta Jone Ercilla (400 metrokoan).

## ADITUAREN TXOKOA

**OIHANA AZKORBEBEITIA**

Mendi lasterketa



## Krosetik mendi lasterketara

Urtero, otsail inguruan ematen zaio hasiera mendiko lasterketen denboraldiari, eta azarora bitartean era guztietako mendi lasterketak jokatzen dira (munduko kopa, Euskal Herrian eta Espainian kopa eta txapelketa, eta beste hainbeste lasterketa herrikoikoak, gero eta txoko-bazter gehiagotan).

Eta, azarora bukatutakoan, nola prestatzen dute korrikalariak hurrengo denboraldi berria? Normalean, udazkenaren hondarrea eta neguaren hasieran ez dute atseden handirik hartzen, eta, lasterketarik egon ez arren, ez dira geldirik egoten. Asko eski munduan murgiltzen dira neguko hilabeteetan, eta beste batzuek krosa aukeratzen dute beraien prestaketa bideratzeko. Kros lasterketak oso laburrak eta arinak dira mendiko lasterketekin alderatuta, baina ezin hobeak dira hankak indartzeko. Euskal Herriko puntako mendi lasterkari askoren aukera da krosa. Beraien artean, aipagarrienetarikoak, Maite Maiora mendararra eta Oier Ariznabarreta durangarra ditugu. Biak ala biak munduko mendi korrikalaririk onenen artean lehiatzen dira, eta neguan kros lasterketak eginda prestatzen dute beraien denboraldi hasiera.

Azken urteetan, hainbat atletek egin dute jauzia krosetik edo atletismotik mendiko lasterketara, eta, egia esan, nahiko emaitza onak lortzen ari dira, orokorrean. Begi bistan dago krosa modalitate egokia dela gero mendian ondo aritzeko.

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
posta elektronikoa: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

**GAER**  **DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

**LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...**

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - **BERRIZ**



# Egin zaitez Anbotoren Lagun, eta atera etekina txartelari!

Babestu proiektua urtean 30 euroren truke,  
eta gozatu abantaila eta deskontu hauek:

## DESKONTU BEREZIAK



### A-METZ DEKORAZIOA

- > -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
- > - %10 altzari eta osagarrietan.



### BETIXU JATETXEA

- > - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauean.



### COLOR PLUS

- > -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- > -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



### EPOCA SUKALDEAK

- > -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



### EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- > -%10 sarreran deskontua museoako eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



### GIMNASIO ZIRKIN

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- > Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



### GONZALO MANCISIDOR BITXI-DENDA

- > -% 5 produktu guztietan.



### HITZ LIBURU-DENDA

- > -%10 euskarazko liburuetan.



### HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- > -%15 sarreran.



### ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- > -%5 lehenengo erosketan.
- > -%10 erosten den bigarren arropan.



### IURRETA KOPISTEGIA

- > -% 10 eskola eta bulego materialean.
- > -%5 musika, opari eta liburuetan.



### KATXARRO JATETXEA

- > - %10 asteburuetako menuetan.



### KIROL ERROTA GIMNASIOA

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.



### LANDAKO OPTIKA

- > -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



### NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- > -% 10 Dippner oinetakoetan.
- > -% 15 Euskal Herriko produktu ekologikoetan.



### OPEN KLUB

- > -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



### PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- > Bosgarren gosaria doan.
- > Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



### UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

- > Azterketa eta bi erradiografiak doan.



### UNDARRI BIKE

- > -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
- > -%10 bizikletako osagarrietan.



### URRIKE LIBURU-DENDA

- > -%5 liburuetan.
- > -% 10 papergintzan.

# Anbotoren lagunak

## Lekuan lekuko lagunak

[www.anboto.org](http://www.anboto.org)  
[lagunak@anboto.org](mailto:lagunak@anboto.org)  
 946 816 558

Anboto komunikabideak

@anboto



# Abadiño pisu txikietan domina bila munduko txapelketan

Abadiño Sokatira Taldea munduko onenekin lehiatzen dabil Herbehereetan



Abadiño Sokatira Taldeak 17 fitzolari eraman ditu Herbeheretara.

**> SOKATIRA** Joseba Derteano Abadiño Sokatira Taldea Herbeheretako Volendam herrian da egunotan, Munduko Sokatira Txapelketan parte hartzeko. Oztupoz beteriko denboraldi baten ostean, urteko sasoirik onenean heldu dira txapelketara, eta pisu txikietan dominen borrokan aritzea dute helburu.

17 tiralariarekin joan dira Herbeheretara. Atzo, 640 kilora arteko tiraldiak izan zituzten. Gaur, 600 kilora artekoan jardungo dute, eta bihar, 560 kiloko artekoan. Itxaropenik handienak azken bietan jarri dituzte,

pisurik txikienetan. Orain urte bi, zilarra jantzi zuten 560koan: “Badakigu irabaztea oso gaxa dena. Faktore askok eragin dezakete, multzoetan egokitzen diren aurkariak, esaterako. Edozelan ere, pisurik txikienetan dominarako borrokan aritzea dugu helburu”, dio Mikel Lasuen tiralariak.

## Denboraldi zaila

